

# LANKIDETZA-HITZARMENAREN EREDUA

## AURKIBIDEA

---

Lankidetzaz hitzarmenaren ereduak.....	2
1. ERANSKINA: hitzarmena likidatzeko dokumentazio ekonomikoa .....	14
2. ERANSKINA: Kontu-auditoreak justifikazio-kontuaren berrikuspen eta egiaztapenari buruz eman beharreko txostenaren irismena eta edukia .....	19



## *Lankidetzaren hitzarmenaren ereduak*

*Jarraian, ondorio hauetarako erreferentzia moduan erabili behar den hitzarmen-eredua jasotzen da. Ereduan, araudiak eskatzen dituen gutxieneko atal guztiak biltzen dira, eta, haietako bakoitzean, islatu beharreko edukiari buruzko azalpen labur bat dago. Beste atal batzuk ere sartu dira; izan ere, nahiz eta atalok nahitaezkoak izan ez, iritzi zaio hobe dela haiek ere jasotzea hobeto arautzearen hitzarmenean finkaturiko baldintzak. Gainera, atal batzuetan hitzarmenean hitzez hitz sartu litezkeen zenbait testu adierazten dira, **letra etzanez eta beltzez**.*



.....REN ETA .....REN ARTEKO  
.....RAKO LANKIDETZA HITZARMENA

.....(e)n, 2XXX(e)ko .....ren ...(e)(a)n

#### HAUEK BILTZEN DIRA:

Batetik, ..... jauna/andrea, Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren ordezkari gisa, ..... dela bide jarduten duena.

Bestetik, ..... jauna/andrea, ..... erakundearen (IFK: .....; helbidea: ..... udalerrria; ..... probintzia; ..... kalea, ..... zk., ..... PK) izenean eta haren ordezkari gisa, ..... notarioaren aurrean XXXX/XX/XX(e)(a)n egiletsitako ahalordea dela bide.

Bestetik, ..... jauna/andrea.

Alderdiek hitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridiko nahikoa dutela aitortzen diote elkarri, eta, hori dela bide, honako hau

#### ADIERAZTEN DUTE:

«Zioen azalpen»ean alderdi hauek garatuko dira:

- Alderdi bakoitzaren jarduketaren oinarri den eskumena:
  - ✓ Administrazio Publikoen kasuan, administrazio bakoitzak arlo horretan dituen eskumenak jasotzen dituzten lege-xedapenak.
  - ✓ Zuzenbide pribatuko erakundeen kasuan, erakundearen xedea, zeinak justifikatzen duen hitzarmena egiteko beharrezkoa den interes orokorreko helburu komuna.
- Hitzarmena egitea gaitzen duten lege-xedapenak, eta, hala badagokio, identifikatu behar da hitzarmenaren mota 40/2015 Legearen 47.2 artikulua jasotzen direnetariko bat dela.



- Hitzarmena egitearen premia eta egokitasuna, adieraziz hitzarmena alderdien arteko akordio bat dela interes orokorreko helburu komun bat lortzekoa.
- Publizitaterik egin ez bada edo ez bada beste subjektu batzuen lehia sustatzeko jarduketarik egin, atal honetan egiaztatu beharko da interes ekonomiko, sozial edo humanitarioko edo bestelako zer arrazoi dauden, interes orokorreko helburu komuna lortzearen, justifikatzen dutenak hitzarmena egitea hura sinatuko duten subjektuen artean.

Hitzarmen honen xedea ..... da, eta alderdiek beren gain hartzen dituzten baldintzak eta konpromisoak ere ezartzen ditu.

Horrela, bada, arestian azaldutakoarekin bat etorritz, alderdiek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, zeinak klausula hauek bete behar dituen:

## KLAUSULAK

### 1 Hitzarmenaren xedea eta subjektu bakoitzak egin beharreko jarduketak (40/2015 Legearen 49.c) artikulua)

Atal honetan, hitzarmena egitearekin lortu nahi den interes orokorreko helburu komuna identifikatu behar da, bai eta alderdi bakoitzak hura betetzeko egin beharreko jarduketak zein lortu litezkeen emaitzen gaineko titulartasuna ere.

Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak hitzarmenaren eranskinetan edo klausula berezi batean ere jaso litezke, hala egitea egoki iritziz gero (jarduketak oso zabalak edo konplexuak direlako).

Kontuan hartu behar da jarduketa batzuen kostua alderdien konturakoa izan daitekeela eta, beraz, ez dira islatuko hitzarmeneko gastuen eta sarreraren aurrekontuaren; ondorioz, jarduketok bereizita agertu behar dira.

### 2 Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromiso ekonomikoak (40/2015 Legearen 49.d) artikulua)



Alderdiek konpromiso ekonomikoak hartu badituzte beren gain, atal honetan adierazi beharko da haien urtekako denbora-banaketa, bai eta dagokion aurrekontuari zehazki egotziko zaiona ere, aurrekontu-legeriak xedatu duenaren arabera. Halaber jasoko da alderdiek nola, zein epetan eta zein baldintzatan gauzatuko dituzten beren artean adostutako finantza-ekarpenak.

Alderdi bakoitzak jarri beharreko zenbatekoen kuantifikazioa hemen jasoko da:

1. Hitzarmeneko gastuen eta sarreren aurrekontuan ondoreak dituzten jarduketan memoria/zerrenda.
2. Hitzarmeneko gastuen eta sarreren aurrekontua

Hori guztia sartu daiteke edo hemen edo hitzarmeneko eranskin batean, hitzarmenaren ezaugarrien arabera, eta aztertu egin behar da hitzarmenarekin batera nahitaez aurkeztu beharreko justifikazio-memorian.

Horri buruz egin litezkeen zehazpenak gorabehera, atal honetan eduki hau duen lerroalde bat sartu beharko litzateke:

«Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastutzat eta, beraz, alderdiek egindako finantza-ekarpenekin finantzatzeko modutzat jotzen diren gastutzat joko dira hauek: indarrean dagoen araudiarekin bat behar bezala justifikatuta daudenak, hitzarmenaren likidazio-datan ordainduta daudenak, beharrezkoak direnak eta batere zalantzarik gabe bat datozenak lagundutako jardueraren izaerarekin eta hitzarmenaren xedearen garapen normalarekin».

Nolanahi ere, hitzarmenaren xedea kontuan hartuta, alderdiek eskumena dute erabakitzeke zer izaera duten haiek egindako finantza-ekarpenekin finantzatzeko modutzat jotzen diren hitzarmena gauzatzearen ondoriozko gastuak edo, gutxienez, zer gastu ez diren finantzatu behar.

### **3 Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzearen ondorioak (40/2015 Legearen 49.e) artikulua)**

Adierazi behar da zer ondorio aplikatu behar diren alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu; halaber adierazi behar dira ez-betetzetik ondoriozta daitekeen kalte-ordaina zehazteko irizpideak.



#### **4 Jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoak, hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoari aplikatzekoak (40/2015 Legearen 49.f) artikulua)**

Atal honetan, zehaztuko da nola egingo den hitzarmenaren betearazpenari eta hartutako konpromisoen betetzeari buruzko jarraipena, eta, horretarako, aintzat hartuko da hurrengo lerroaldeetan ezarritakoa.

40/2015 Legearen 48.5 artikulua honako hau ezartzen du:

«Finantza-konpromisoak barnean hartzen dituzten hitzarmenek jasagarri behar dute finantzen aldetik, eta sinatzaileek gaitasuna izan beharko dute beren gain hartutakoak finantzatzeko hitzarmenak dirauen bitartean».

Halaber, 40/2015 Legearen 48.6 artikulua honako hau ezartzen du:

«Sinatzaileek finantza-ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino».

Interpretatu behar da sinatzaileek egiteko konpromisoa hartu duten finantza-ekarpenak direla, hitzarmena gauzatzearekin lotutako beste sarrera batzuekin batera, gauzatze horren ondoriozko gastuak baino handiagoak izan ezin daitezkeenak.

Bestalde, 40/2015 Legearen 52.2 artikulua honako hau ezartzen du:

«Finantza-konpromisoak sorrarazten dituzten hitzarmenak betetzat hartuko dira beren helburua alderdiek nahi zuten eta zehaztu zuten bezala bete bada, zeinek bere eskumenak baliatuz, eta honako erregela hauek kontuan hartuta:

a) Likidaziotik ateratzen bada alderdietakoren batek gauzatutako jarduketan zenbatekoa txikiagoa dela alderdi horrek hitzarmenaren gainerako alderdiengandik gauzatze hori finantzatzeko jasotako funtsena baino, alderdi horrek gainerako alderdietako bakoitzari itzuli beharko dio dagokion soberakina, gehienez ere hilabeteko epean, likidazioa onartu denetik aurrera.

Aurreko paragrafoan aipatu den hilabeteko gehieneko epea igaro eta kopururik itzuli ez bada, itzulketari aplikatu behar zaion berandutze-interesa ordaindu beharko zaie alderdi horiei, hilabeteko epean ere, une horretatik kontatzen hasita. Interes hori zein den jakiteko, hauei begiratu beharko zaie: gastu publikoa eta sektore publikoaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten xedapen orokorrei.



b) Zenbatekoa handiagoa bada, hitzarmenaren gainerako alderdiek, hilabeteko epean likidazioa onartzen denetik, dena delako alderdiari ordaindu beharko diote haietako bakoitzari dagokion diferentzia, gehienezko muga honekin: alderdi bakoitzak hitzarmenaren arabera ekartzeko konprometituta zuen kopurua. Hitzarmenaren alderdiek ez dute inola ere eskubiderik izango aipatu gehieneko mugetatik gorako kopururik eskatzeko gainerako alderdiei».

Aurreko lerroaldeetan ezarritakoa betetzeko, jarraian adierazten diren jarraipen eta kontrolerako mekanismoak ezarri behar dira hitzarmenean.

#### **4.1 Jarraipen eta Kontrolerako Batzordea**

Atal, honetan, alderdiek, besteak beste, hauek adierazi behar dituzte:

- a) Batzorde hau izango da sinatzaileen arteko lankidetzarako bidea, bai eta hitzarmena betearaztean sortzen diren interpretazio-arazoak ebazteko zein hitzarmena betearazteari eta hartutako konpromisoak betetzeari buruzko jarraipen eta kontrolerako ere.
- b) Alderdiak edo haiek eskuordetutako pertsonal ordezkatzan dituzten kideen kopurua, bai eta bakoitzak hartutako karguak ere (batzordeburutza, idazkaritza...).
- c) Batzordeak edo batzordeko karguek beren gain hartutako eginkizunak.
- d) Deialdiak egiteko maiztasuna eta modua.
- e) Erabakiak hartzeko modua.
- f) Batzordearen ardura izango da adostutako jarduketak egiaztatzeari buruzko akta egitea, hitzarmenaren indarraldia amaitzen denean.

Finantza-ekarpena dagoen kasuetan, jasota utziko da finantzaketa egiten duen alderdiari dagokiola, nagusiki, hurrengo 4.2 klausulan adierazitako justifikazio-agiriak egiaztatzeko lana; nolana ere, alderdi horrek proposatuta, jarraipenerako batzordeak ikuskatu eta berretsi egin dezake egiaztapen-akta.

- g) 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoaren ondoriozkoak.

#### **4.2 Alderdi bakoitzak egin beharreko jarduketak justifikatzeko eta kontrolatzeko epea eta modua**



Atal honetan, zehaztuko da zein den azken eguna justifikazio-agiriak Jarraipenerako Batzordeari —eta, hala badagokio, finantzaketa ematen duen alderdiari ere bai— aurkezteko.

Hala, egoera bereizi bi ager daitezke:

a) *Finantza-ekarpenik ez dakarten konpromisoak*

Kasu honetan, alderdiek adostu dezakete jarduketa-memoria bat egitea beren gain hartutako konpromisoak bete dituzten justifikatzeko, non adieraziko den zer jarduketa egin diren eta zer emaitza lortu diren; edo, bestela, beste ordezkoko prozedura batzuk zehaztu ditzakete adostutako konpromisoak bete direla egiaztatzeko.

b) *Finantza-ekarpena dakarten konpromisoak*

Kasu honetan, alderdiek adostu behar dute jarraian adierazten diren justifikazio-modalitateetakoren baten arabera egingo dutela kontrola:

1. *Justifikazio-kontua, gastu-ziurtagiriak aurkeztuta.*

Modalitate hori aukeratzen denerako, justifikazioa egiteko aurkeztu beharrekoa dela-eta hau da proposatzen den testua:

a) *Hartutako konpromisoak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita.*

b) *Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa, honako hauek dituena:*

1. *Hitzarmenaren xede den proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria (ikus 1.1 eranskineko erreferentzia-eredua).*
2. *Aurreko 1. zenbakian aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda sailkatu bat egon behar da, jarduketaren gastuak jasotzen dituena. Zerrendan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere bai (1.2 eta 1.3 eranskinak).*
3. *Aurreko zenbakian aipatutako zerrendan jasotzen diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzeko agiriak.*





Aurrekoa gorabehera, alderdiek adostu dezakete halako agiririk aurkeztu behar ez izatea, eta zehaztu dezakete frogagiriok laginketa-teknika batzuk aplikatuz egiaztatuko direla; hain zuzen ere finantza-ekarpena egoki aplikatzeari buruzko arrazoizko ebidentziak lortzeko egoki irizten dituzten teknikak izan behar dira. Bigarren kasu horretan, finantza-ekarpena jasotzen dituen pertsonari eskatu ahal izango zaio bidal ditzala laginketa bidez hautatutako gastuaren edo inbertsioaren frogagiriak, bai eta haiek ordaindu izanaren frogagiriak ere.

4. Behar bezala akreditutako eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako tasatzaile independente baten ziurtagiria, finantzaketa ondasun higiezinak eskuratzeko ere izango bada.
5. Adierazpen bat, hala badagokio, zehaztuz zer irizpideren arabera banatu diren 2. zenbakian aipatzen diren zerrendan sartu diren kostu orokorrak zein banatzeko moduko kostuak, salbu eta hitzarmenean bertan aurrez ikusi bada kostuok oroharreko prezioan konpentsatuko direla justifikazio beharrik gabe.
6. Aurreko 1. zenbakian aipatzen den sarreraren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, jarduera finantzatu duten diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda xehakaturik, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita (1.4 eranskina).
7. Dena dela, gastuaren zenbatekoa handiagoa bada Sektore Publikoko Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino, gastua exekutatzen duen alderdiak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik.

Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira, eta, haien artean aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak hartuko dira kontuan. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memorian.

Aurrekoa gorabehera, lankidetzaren hitzarmenaren xedea eta ezaugarriak direla-eta irizten bazaio egiaztatze-lana ondo egiteko ez dela beharrezkoa aurkeztea aurreko lerroaldeetan adierazitako justifikatzeko agiri guztiak, agirirotako batzuk ez aurkeztea erabaki daiteke.



## II. Justifikazio-kontua, auditorearen txostena aurkeztuta

Modalitate hori aukeratzen denerako, adostutako justifikazioaren baldintzak honela ezarri beharko dira:

- a) Hartutako konpromisoak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita.
- b) Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa, honako hauek dituenen:
  1. Finantzatutako jarduketeki egozgarriak zaizkien gastuen eta sarreraren egoera-orria, 1.1 eranskinen proposatzen den egituraren arabera.
  2. Gastuen zerrenda sailkatu bat gastuen aurreko egoera-orri horretan egotzitako gastu-kontzeptu bakoitzeko (1.2 eta 1.3 eranskinak).(aukerakoa)
  3. Sarreraren zerrenda sailkatu bat sarreraren aurreko egoera-orri horretan egotzitako sarrera-kontzeptu bakoitzeko (1.4 eranskina). (aukerakoa)
  4. Adierazpen bat, hala badagokio, zehaztuz zer irizpideren arabera banatu diren kostu orokorrak eta banatzeko modukoak, salbu eta hitzarmenean bertan aurrez ikusi bada kostuok oroharreko prezioan konpentsatuko direla justifikazio beharrik gabe.

Justifikazio-kontuaren berrikuspena egin eta hari buruzko txostena ematen duen kontu-auditoreak 2. eranskineko agirian ezartzen diren irispide eta edukiekin egin behar dute hori guzti; hau da 2. eranskina: «XX erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 20XX ekitaldirako, .....rako sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren arabera kontu-auditoreak justifikazio-kontuaren berrikuspen eta egiaztapenari buruz eman beharreko txostenaren irismena eta edukia».

## 5 Hitzarmena aldatzeko araubidea (40/2015 Legearen 49.g) artikulua)

Hitzarmena aldatzeko egoki irizten zaion araubidea zehaztuko da atal honetan. Arau espresurik ez badago, sinatzaileen ahobatezko erabakia beharko da hitzarmena aldatzeko.



## 6 Hitzarmenaren indarraldia (40/2015 Legearen 49.h) artikulua)

Atal honetan hauek ezarriko dira:

- a) Hitzarmenaren iraunaldi zehatza, zeina gehienez ere lau urtekoa izango den, non eta epe luzeagoa aurrez ikusten ez den arau bidez.
- b) Aurreko zenbakian aurrez ikusitako epea amaitu aurretik, hitzarmenaren alderdi sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

## 7 Hitzarmenak azkentzea (40/2015 Legearen 51. artikulua)

Atal honetan, hitzarmenak azkentzeko arrazoiak identifikatuko dira, eta honela egin liteke:

*«Hitzarmen hau azkenduko da edo bere xede diren jarduketak betetzean edo suntsiarazteko arrazoiak gertatzean.*

*Suntsiarazteko arrazoi dira:*

- *Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.*
- *Alderdi guztien ahobatezko erabakia.*
- *Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.*
- *Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.*
- *Legeek aurrez ikusitako beste edozein arrazoi gertatzen denean».*

## 8 Hitzarmenak suntsiaraztearen ondorioak (40/2015 Legearen 52. artikulua)

Atal hau betetzeko hauek hartu behar dira kontuan:

- a) Hitzarmenak bete edo suntsiarazi direlarik, likidatu egingo dira, alderdietako bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak bete diren zehaztearen.
- b) Sinatzaileek ekarpenak egiteko konpromisoa hartu badute, ekarpen horiek ezingo dira handiagoak izan hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak baino (40/2015 Legearen 48.6 art.). Interpretatu behar da alderdiek konprometitutako ekarpenak hitzartutako proiektuaren



*finantzaketa-betebeharrei erantzuteko erabiliko direla; beraz, gehiegizko finantzaketa egon litekeen ikusteko, hitzartutako proiektuari egotzi ahal zaizkion beste sarrera edo laguntza batzuekin batera kalkulatu beharko da hori.*

- c) *Likidaziotik ateratzen bada finantzaketa jaso duenetakoren batek gauzatutako jarduketan zenbatekoa txikiagoa dela alderdi horrek hitzarmenaren gainerako alderdiengandik gauzatze hori finantzatzeko jasotako funtsena baino –funts horiei beste laguntza eta sarrera batzuk batuta betiere–, alderdi horrek gainerako alderdietako bakoitzari proportzionalki itzuli beharko dio dagokion soberakina, gehienez ere hilabeteko epean, likidazioa onartu denetik aurrera.*

*Hilabeteko epea igaro eta kopururik itzuli ez bada, itzulketari aplikatu behar zaion berandutze-interesa ordaindu beharko zaie alderdi horiei, hilabeteko epean ere, une horretatik kontaktzen hasita. Interes hori zein den jakiteko, hauei begiratu beharko zaie: gastu publikoa eta sektore publikoaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten xedapen orokorre.*

- d) *Aldiz, gauzatutako jarduketan zenbatekoa handiagoa bada hitzartutako proiektuari egozgarriak zaizkion sarreren zenbatekoa baino, hitzarmenaren gainerako alderdiek, hilabeteko epean likidazioa onartzen denetik, haietako bakoitzari dagokion diferentzia ordaindu beharko dute, gehienezko muga honekin: alderdi bakoitzak hitzarmenaren arabera ekartzeko konprometituta zuen kopurua.*

## **9 Alderdien laguntzeko betebeharra**

*Atal honetan jasota utzi behar da ezen alderdiek konpromisoa hartzen dutela Bizkaiko Foru Aldundiari laguntzeko Aldundiak egin litzakeen kontrol-eginkizunetan, hala hitzarmena kudeatzen duen saileko organoen bidez egiten dituenetan nola Ogasun eta Finantza Sailaren kontrol-organoaren bidez egiten dituenetan.*

## **10 Datu pertsonalen babesa**

*«Alderdi sinatzaileek konpromisoa hartzen dute Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege organiko hori garatzen duen erregelamendua onesten duen 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa betetzeko.»*

## **11 Araubide juridikoa**



Atal honetan, zer araudi aplikatu behar den identifikatuko da. Eta, zehatzago, hauek jaso behar dira:

- a) Hitzarmenak administrazio-izaera du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluan xedatzen denaren arabera.
- b) Hitzarmen honek bete egiten ditu Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren 46.2 artikuluan ezarritako baldintzak. Foru-dekretu horrek, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onesten du, zeinak garatzen baitu Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina.
- c) Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean auziren bat sortzen bada, eta 4.1 klausulan aipatutako jarraipenerako batzordeak ezin badu konpondu, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren barruan ebatziko dira, jurisdikzio hori arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.
- d) Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen 2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

**«Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.»**



# 1. ERANSKINA: hitzarmena likidatzeko dokumentazio ekonomikoa

- 1.1 *Proiektuari egotzitako gastuen eta sarreren egoera-orria*
- 1.2 *Pertsonal-gastuen zerrenda sailkatua*
- 1.3 *Kontzeptuen arabera sailkatutako gastuen zerrenda (gainerako gastuak)*
- 1.4 *Kontzeptuen arabera sailkatutako sarreren zerrenda.*

<b>ERAKUNDEA</b> (Irabazi-asmorik gabeko erakundeak)		<b>ZENTROA:</b>					
<b>GASTU ETA SARREREN EGOERA-ORRIA:</b> (kopurua eurotan)		<b>ALDIA:</b>					
<b>A) GASTUAK</b>		<b>Zenbatekoa (€)</b>	<b>B) SARRERAK</b>		<b>Zenbatekoa (€)</b>		
<b>1. Laguntzen eta beste batzuen ondoriozko gastuak</b>		.....	<b>1. Erakundeak bere jarduera dela-eta izandako sarrerak</b>		.....		
a)	Diruzko laguntzak (650)	.....	a)	Bazkideen eta afiliatuen kuotak	(720)	.....	
b)	Diruzkoak ez diren laguntzak (651)	.....	b)	Erabiltzaileen ekarpenak	(721)	.....	
c)	Lankidetzen eta gobernu-organoaren ondoriozko gastuak (653, 654)	.....	c)	Babesle eta laguntzaileek eginiko sarrerak	(722,723)	.....	
d)	Diru-laguntza, dohaintza eta legatuen itzulketa (658)	.....	d)	Diru-laguntzak	(74)	.....	
				BFaren diru-laguntzak		.....	
				Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak		.....	
				Beste diru-laguntza batzuk		.....	
<b>2. Hornidurak</b>		.....	e)	Dohaintzak	(747)	.....	
a)	Jarduerarako ondasunak erostea eta hornidurak egitea (601,602)	.....	f)	Laguntzen eta esleipenen itzulketa	(728)	.....	
b)	Beste erakunde batzuek jarduera horretarako eginiko lanak (607)	.....	g)	Zerbitzuak saltzea eta ematea	(702)	.....	
c)	Jarduerarako ondasun eta izakinen aldakuntza (+,-) (610)	.....					
d)	Salgaien, lehengaien eta beste hornikuntza batzuen narriadura (6931)	.....	<b>2. Jardueraren beste sarrera batzuk</b>		.....		
<b>3. Pertsonal-gastuak</b>		.....	a)	Errentamenduak	(752)	.....	
a)	Soldatak, alokairuak eta asimilatuak (640, 641)	.....	b)	Hainbat zerbitzu	(759)	.....	
b)	Karga sozialak (erakundearen kargurako G. Seg. eta beste batzuk) (642)	.....	c)	Beste batzuk		.....	
c)	Hornidurak (644, 7950)	.....	<b>3. Ekitaldiko gaidikinera eramandako kapitaleko diru-laguntza, dohaintza eta legatuak</b>		.....		
<b>4. Beste gastu batzuk</b>		.....	a)	Gaidikinera eramandako diru-laguntzak	(745)	.....	
a)	Kanpoko zerbitzuak (62)	.....	b)	Gaidikinera eramandako kapitaleko doha	(747)	.....	
	Errentamenduak eta kanonak	.....					
	Konponketak eta kontserbazio-lanak	.....					
	Profesional independenteen zerbitzuak	.....					
	Garraioa	.....					
	Aseguru-prima	.....					
	Banku-zerbitzuak eta antzekoak	.....					
	Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	.....					
	Hornidurak, ura, argia eta beste batzuk	.....					
	Beste zerbitzu batzuk	.....					
b)	Tributuak (631,634,636,639)	.....					
c)	Narriaduraren ondoriozko galerak eta horri (655,694,695,794,795)	.....					
d)	Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk (650,659)	.....					
<b>5. Ibilgetuaren amortizazioa</b>		(68)	<b>4. Finantza-sarrerak</b>		(76)	.....	
<b>6. Finantza-gastuak</b>		(66)					
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>		.....	<b>SARRERAK, GUZTIRA</b>		.....	.....	
<b>Ekitaldiko gaidikin positiboa</b>		.....	<b>Ekitaldiko gaidikin negatiboa</b>		.....	.....	









## **2. ERANSKINA: Kontu-auditoreak justifikazio-kontuaren berrikuspen eta egiaztapenari buruz eman beharreko txostenaren irismena eta edukia**

*XX erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 20XX ekitaldirako, .....rako sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren arabera kontu-auditoreak justifikazio-kontuaren berrikuspen eta egiaztapenari buruz eman beharreko txostenaren irismena eta edukia:*

### **1. Jardun-arauen xedea.**

*Eranskin honetan jasotzen diren arauen xedea da zehaztea kontu-auditoreek zer arau errespetatu behar dituzten erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak .....rako sinatutako hitzarmenean aipatzen den justifikazio-kontuarekin batera aurkezten den txostena ematerakoan.*

*Dokumentu honetan, auditorearen jarduna arautu behar duten jarraibideak ezartzen dira; egin beharreko lanen nondik norakoak zehazten dira, eta berrikuspena amaitu ondoren emango duten txostenak jaso beharreko edukia zehazten da.*

### **2. Auditorearen jarduna arautu behar duten printzipioak.**

*1- Dokumentu honetan jasotako arauak aplikatzeko, hauek dira kontu-auditoreak: Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jarduneko auditore gisa inskribatuta daudenak.*

*2- Finantzaketa jasotzen duen erakundeak justifikazio-kontua prestatzeko betebeharra du, eta, horretarako, hitzarmenaren 1. eranskinean biltzen den gastuen eta sarreraren egitura erabili behar dute; bada, kontu hori eta auditorearen txostena Jarraipenerako Batzordeari aurkeztu behar zaizkio, lankidetzaz hitzarmenean ezarritakoaren arabera.*



Auditoreak berrikusi eta egiaztatu beharreko justifikazio-kontuaren egitura eta edukia 1. eranskinean jasotzen da.

3- Auditorearen erantzukizuna bere lana dokumentu honen edukiaren arabera egitera mugatzen da, bertan ezarritako prozedurak gauzatu. Halaber, beste prozedura batzuk ere aplikatu ahal izango ditu, bere esperientziaren eta ezagutzaren arabera berrikuspenaren eta egiaztatzearen xedea betetzeko lagungarri bazaizkio.

Auditoreak txostena egin behar du, bere lanaren emaitza gisa, non zehaztuko duen zer egiaztapen egin duen. Halaber adierazi behar ditu onuradunak gastuak eta sarrerak egotzeko aplikatu beharreko araudia ez betetzea eragin lezaketen akats edo salbuespen guztiak, eta xehetasun eta zehaztasun nahikoarekin eman behar du horren inguruko informazio guztia, Jarraipenerako Batzordeak horri buruzko erabakia hartu ahal dezan.

4- Auditoreak dokumentu honetan ezarritakoa bete behar du, eta, horrez gainera, osagarri gisa, honako hauek ere bete behar ditu: independentzia, bateraezintasuna, ardua profesionala, sekretu profesionala, ordainsariak eta lan-paperak direla-eta kontu-auditoriari buruzko indarreko araudian ezarritako arau eta printzipioak.

### **3. Auditoreak aplikatu beharreko prozedurak.**

Txostena emateko, auditoreak egiaztatu beharko du ea egokia den finantzaketa jaso duen erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazio-kontua; horretarako, prozedura hauek egingo ditu:

#### 1- Prozedura orokorrak:

1.a. Finantzaketa jasotzen duten alderdiei ezarritako betebeharrak ulertzea.

Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako lankidetzeta-hitzarmena aztertuko du auditoreak, bai eta finantzaketa jasotzen duen erakundeari ezarritako betebeharrak zehazten dituen dokumentazio guztia ere, berak egin beharreko berrikuspenari eragiten dion neurrian.

2.a. Justifikazio-kontua eskatzea.



Auditoreak justifikazio-kontua eskatuko du, eta ziurtatuko du hitzarmenean ezarritako elementu guztiak jasotzen dituela. Horrez gainera, egiaztatu beharko du behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatu duela.

3.a. Kontu-auditoriaren auditoretza-txostena eta komunikazioa kontu-auditorearekin.

Finantzaketa jaso duen erakundearen kontu-auditoretza justifikazio-kontua berrikusteko izendatuta zegoen auditoreak barik beste auditore batek egin badu, auditoreak auditoria-txosten hori eskuratu beharko du, bere berrikuspen-lana baldintzatu lezakeen salbuespenik dagoen jakiteko. Horrez gainera, enkarguaren berri emango dio erakundearen kontu-auditoreari, eta eskatuko dio eman diezaiola eskura duen eta justifikazio-kontua berrikusteko lana baldintzatu edo mugatu lezakeen informazio guztia. Informazio hori jaso ahal izateko, erakunde horrek baimena eman behar dio aurretik kontu-auditoreari.

2- Justifikazio-kontuari dagozkion prozedura espezifikoak:

Txostenean, egindako prozedurak eta haien ondorioz lortutako emaitzak aipatu beharko dira.

Ondorio horietarako, prozedura hauek egingo dira:

2.1 *Jarduketa-memoria berrikustea.*

Auditoreak jarduketa-memoriaren edukia aztertu behar du, eta adi egon behar du, bere lan guztian zehar, ikusteko ea bateratasun faltarik dagoen memoria horretan jasotako informazioaren eta justifikazio ekonomikoa berrikusteko oinarri gisa erabili diren dokumentuen artean.

2.2 *Memoria ekonomikoa berrikustea.*

Gastuen egoera-orriaren berrikuspena honela egingo da:

- a) *Erakundearen pertsonal-gastu guztiak hartuko dira kontuan.*
- b) *Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, lagin bat hartu behar da –% 40koa baino handiagoa– gastuen zerrenda sailkatutik, prozedura estatistikoak aplikatuta; konfiantza-maila % 95ekoa izan behar da eta gehieneko errorea,  $\pm$ % 5.*



*Kasu horretan, adierazi behar da zer laginketa-sistema erabili den eta aztertutako laginak zenbat elementu eta zer zenbateko duen totalarekiko.*

*Alderdi hauek egiaztatuko dira:*

*1.a. Justifikazio-kontuan jasotzen den informazio ekonomikoa hitzartutako jarduketako gastuen zerrenda sailkatuan oinarrituta dagoela, eta, bertan, hauek identifikatu behar dira: hartzekoduna, faktura edo araudiaren arabera onartzeko modukoa den frogagiria, hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.*

*2.a. Erakundeak badituela justifikatutako gastuak egiaztatzeko jatorrizko dokumentuak, eta dokumentu horiek kontabilitateko erregistroetan islatu direla.*

*3.a. Zerrendan sartuta dauden gastuek bete egiten dituztela, orokorki onartutako kontabilitate printzipioen eta arauen arabera, gastu egozgarritzat jotzeko baldintzak eta behar besteko koherentzia dagoela justifikatutako gastuen eta hitzartutako jarduketan izaeraren artean. Zentzu horretan, auditoreak eragiketen etena egingo du ekitaldiaren hasieran eta amaieran, egotzitako gastuek benetako irudia jasotzen dutela bermatzeko.*

*4.a. Zeharkako kostuak edo banatzeko moduko kostuak egozten direnean, auditoreak egiaztatuko du zer banatze-sistema erabili den eta aitorten bat eskatuko du kostuen izaera, zenbateko eta banatze-irizpideei buruz; aitorten hori txostenari erantsiko zaio. Halaber ebaluatuko da ea egokiak diren egotzitako kostu horiek, eta egiaztatuko da ea haien zenbatekoa egoki banakatuta dagoen dagokien zerrenda sailkatuan.*

*5.a. Gastuak zuzen sailkatu direla gastuen egoera-orriko kontzeptuetan.*

*6.a. Auditoreak pertsona baimendu batek egindako aitopena eskatuko dio erakunde finantzatuari erakunde horri lotutako enprekin azpikontratutako jarduketei buruz, eta, aitorten horretan, adierazi behar da zer azpikontratataile diren eta zenbat fakturatu den. Azpikontratazioak merkatuko baldintzetan egin direla egiaztatuko du. Hala egin ezin badu, horren inguruko aitopena egiteko eskatuko dio erakundeari.*

*7.a. Auditoreak pertsona baimendu batek sinatutako aitorten bat eskatuko dio erakundeari, zeinean hitzartutako jarduera finantzatu duten diru-laguntzen, sarreren eta baliabideen zerrenda*



zehatza jasotzen den; zerrendan, finantziario-bide horien zenbatekoa eta iturria adierazi behar da.

8.a. Lana amaitutakoan, auditoreak gutun bat —justifikazio-kontua sinatu zuen pertsonak berak sinatua— eskatuko dio erakundeari, non adierazi behar duen auditoreak informazioa eman diola hitzartutako jarduerarekin lotutako gastuak eta sarrerak egoki egozterakoan eragina izan dezaketen inguruabarrei buruz. Horrez gainera, eginiko prozeduretarako garrantzizkoak izan eta argitasun gehiago ekartzen duten adierazpenak ere jasoko dira.

#### **4. Konfidentzialtasun-eginbeharra.**

Auditoreak eta bere zerbitzura dauden langileek sekretupean gorde behar dute berrikuspena egiterakoan ezagutzen duten informazio guztia, kontu-auditorien arloan indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan.

Edonola ere, honako pertsona edo erakunde hauek eskuratu ahal izango dute auditorearen dokumentazioa:

- Jarraipenerako Batzordea osatzen duten pertsonak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantza Sailaren barruan Foru Administrazioaren finantza-kontrolaren eskumena duen organoak.
- Legez baimenduta daudenek edo ebazpen judizial bidez izendatuta daudenek.

#### **5. Egindako lana egiaztatzeko dokumentazioa.**

1- Auditoreak dokumentazio-artxibo bat kudeatu behar du, berrikuspene-lana egiaztatzen duten eta emandako txostenaren oinarri diren agiriak gordetzeko.

Oro har, kontu-auditoriari buruzko araudian auditorearen lan-paperak direla-eta ezarritakoaren arabera jaso eta prestatuko da dokumentazio hori. Dokumentazioak lana erraztuko du, eta bide emango du erakusteko berrikuspena dokumentu honetan ezarritakoaren arabera egin dela. Hain zuzen ere, honako hauek jasoko ditu:

- Jardun-arau hauetako 3. zenbakian adierazitako dokumentazioa.
- Auditoreak aplikatutako prozedurak.



- *Jasota utzi behar da auditoreak lortutako ebidentzia, eta adierazi behar da auditoreak horretarako erabilitako bide zehatza, aztertutako alderdiak eta dokumentua, erregistroa edo, oro har, auditorearen iturria identifikatzeko beharrezkoa den informazio guztia.*

*2- Auditoreak gutxienez ere lau urtez gorde beharko ditu eginiko lana justifikatzen duten agiriak; txostena eman duenetik hasiko da zenbatzen epe hori. Epe hori igarotzen denean bertan behera geldituko da betebehar hori.*

#### **6. Auditoreak eman beharreko txostena.**

*Berrikuspena amaitu ondoren, auditoreak txosten bat emango du; txostenak honako alderdi hauek jasoko ditu:*

##### *1- Berrikuspenaren helburua.*

- a) Erreferentzia egin behar zaio erakundearen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean sinatutako hitzarmenari, zeina dela bide betebeharra ezartzen zaion erakundeari justifikazio-kontu bat eta harekin batera auditorearen txostena aurkezteko.*
- b) Erakundearen identifikazioa, bai eta auditorea izendatu duen organoarena ere.*
- c) Identifikatzea hitzartutako jarduera Bizkaiko Foru Aldundia edo beste alderdi bat edo alderdi batzuk direla, sinatutako hitzarmena dela bide, hitzartutako jarduera finantzatzen duten organismoak.*
- d) Bizkaiko Foru Aldundiak jarritako finantzaketaren identifikazioa, bai eta, hala badagokio, gainerako erakunde hitzartuen finantzaketarena ere.*
- e) Berrikusi beharreko justifikazio-kontuaren identifikazioa; kontu hori txostenari erantsiko zaio, eta adierazi behar da finantzaketa jasotzen duen erakundearen erantzukizuna dela kontu hori prestatzea eta aurkeztea.*

##### *2- Berrikuspenaren izaera eta irismena*

- a) Adieraziko da berrikuspen-lan hau ez dela kontu-auditoria bat, ez dagoela Kontuen Auditoretzari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen 2011ko uztailaren 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren pean, eta ez dela ematen justifikazio-kontuari buruzko auditoria-iritzirik.*





- b) Erreferentzia egin behar zaio dokumentu honetan jasotzen diren jardun-arauak arauak aplikatzeari.
- c) Auditoreak berrikuspena egiteko erabilitako prozedurak eta prozedura horien nondik norakoak zehaztuko dira; gutxienez, dokumentu honen 3. artikuluan jasotako prozedura guztiak aplikatu behar dira.

Aurreko 3.2 atalean zehaztutakoarekin bat, beti adierazi behar da zer laginketa-sistema erabili den eta aztertutako laginak zenbat elementu eta zer zenbateko duen totalarekiko.

Edozein arrazoiengatik auditoreak ezin izango balitu osorik bete arauotan aurrez ikusitako prozedurak, aipatuko da zer prozedura izan diren eta zergatik ez diren bete.

- d) Adieraziko da erakundeak berrikuspen-lana egiteko eskatutako informazio guztia eman diola erakundeak auditoreari. Erakundeak eskatutako informazio guztia eman ez badio, egoera horren berri emango da, eta eman ez den informazioa adieraziko da.

### 3- Egindako berrikuspenaren emaitza.

- a) Adostutako pertsonak hitzarmenaren arabera dituen baldintzak eta konpromisoak ez betetzea ekar dezaketen egitateak aipatuko dira.
- b) Justifikazio-kontuaren gastu eta sarreraren egoera-orrian ondorio ekonomikoa izan dezaketen gorabeherak identifikatu eta kuantifikatuko dira, eta, hala badagokio, gastu eta sarrera egozgarrien kopuru zehatza zehaztuko da.
- c) Informazioa behar besteko zehaztasunaz eman behar da, organo kudeatzaileak erabakia hartu ahal izateko.

### 4- Data eta sinadura

Txostena haren egile edo egileek sinatu behar dute, eta txostena ematen den lekua eta eguna adierazi behar dira.